# I ARABAKO FORU ALDUNDIA I
# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Foru Aginduak*

### HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**8.258**

**1028/2005 FORU AGINDUA, azaroaren 30ekoa. Honen bidez, behin betiko onarpena ematen zaio Arraia-Maeztuko udal planeamenduaren ordezko arauen 4. xedapen-aldaketaren espedienteari. Espedientea Azazetako 229-20 lurzatia hiri-lurzoru gisa sailkatzeari dagokio.**

AURREKARIAK

Lehena.- 2005eko apirilaren 5ean Arraia-Maeztuko Udalak udal planeamenduaren ordezko arauen 4. xedapen-aldaketari hasierako onarpena ematea erabaki zuen, baita espedientea hilabetez jendaurrean jartzea ere. Honela eman zen horren berri: 2005eko apirilaren 27ko Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean (48. zenbakia) eta 2005eko maiatzaren 8ko “El Correo” egunkarian argitaratuz, eta udaletxeko iragarki-taulan jarriz.

Bigarrena.- Jendaurrean egon zen bitartean alegaziorik aurkeztu ez zenez gero, Arraia-Maeztuko Udalak, 2005eko ekainaren 8an, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari, eta Arabako Foru Aldundira bidaltzea erabaki zuen, behin betiko onar zezaten. Espediente horri 2005eko ekainaren 28an eman zitzaion sarrera aldundian.

Hirugarrena.- Martxoaren 5eko 35/1985 Dekretuaren eranskinaren a) idatz-zatiko hirugarren puntuan arautukoaren ildotik (dekretu horretan jasotzen da Autonomia Erkidego osorako erakundeek Arabako Lurralde Historikoari hirigintza alorrari dagozkionetan aginpideak eskualdatzea), Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak espedientea aztertu zuen, azaroaren 11ko 7/2005 bilkuran.

Laugarrena.- Era berean, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/99 Foru Dekretuan ezarritakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak espedientearen gaineko txostena eman zuen, azaroaren 18ko 9/2005 bilkuran.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako espediente honek Azazetako Untxa izeneko 20. industrialdeko 229 lurzatia, SUR-4 eremuko hiri-lurzoru gisa sailkatzea eta kalifikatzea du helburu.

Hori arrazoitzeko, dokumentuak oinarrizko azpiegituren planoak aurkezten ditu, eta horietatik honakoa ateratzen da: lurzati horrek badituela hirigintzarako legeriak hiri-lurzoru modura sailkatzeko eskatzen dituen zerbitzuak.

Bigarrena.- Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak eta, horren bidez, Ingurumen eta Lurralde Antolamendurako Sailaren Ur Zuzendaritzak, zenbait ohar egin dituzte, eta horiek kontuan hartu beharko dira urbanizazioa eta eraikinak egiterakoan. Hona hemen laburbilduz:

A- Uren Legeak ezartzen duen zortasuna errespetatuko da ( 5 metro).

B- Eraikinak eta ubideak izango duten tartea Lurraldearen Arloko Planak ibaien eta erreken ertzak antolatzeko ezartzen duena izango da.

C- Edonola ere, errekaren inguruko landareak mantenduko direla bermatuko da.

Bestalde, egin beharreko jarduerak Arroaren Organoak eman beharreko baimena behar duela gogorarazten da.

Hirugarrena.- Lurzati hori gaur egun lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dagoenez, Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Bateratuaren Azterlana egin da.

2005eko martxoaren 3an emandako aurretxostena aurreko oinarrian zehaztutako neurriekin bat dator, oro har. Proposamenaren hitzez hitzeko idazketa honakoa izan zen:

“- Lurzatiaren hegoaldean dagoen errekaren ubidea errespetatuko da, eta uren kalitateari eragingo dion edozein jarduera kaltegarri saihestu. Gauzak horrela, bereziki zaindu beharko dira, obrak egiten

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Órdenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**8.258**

**ORDEN FORAL 1028/2005, de 30 de noviembre, en relación con la aprobación definitiva del expediente de 4ª Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Arraia-Maeztu, referente a la clasificación como suelo urbano de la parcela 229-20 de Azáceta.**

ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 5 de abril de 2005, el Ayuntamiento de Arraia-Maeztu acordó aprobar inicialmente la 4ª Modificación de las Normas Subsidiarias municipales de Planeamiento, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 48 de 27 de abril de 2005 y en el periódico El Correo de 8 de mayo de 2005 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no fue presentada alegación alguna por lo que el Ayuntamiento de Arraia-Maeztu procedió, en su sesión de 8 de junio de 2005 a su aprobación provisional y a su remisión a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 28 de junio de 2005.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el punto tercero del apartado a) del Anexo al Decreto 35/1985, de 5 de marzo, de transferencia de servicios de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma al Territorio Histórico de Álava en materia de Urbanismo, el expediente fue informado por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su sesión 7/2005, de fecha 11 de noviembre.

Cuarto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados número 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 9/2005, de 18 de noviembre.

FUNDAMENTOS

Primero.- El presente expediente se dirige a clasificar y calificar como suelo urbano de la zona SUR4 la parcela 229 del polígono 20 del término de Untxa de Azáceta.

Para justificar tal pretensión el documento aporta los planos de las infraestructuras básicas, de los que se desprende que la parcela posee los servicios urbanos requeridos por la legislación urbanística para clasificar un terreno como suelo urbano.

Segundo.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco y, a través de ella, la Dirección de Aguas del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, han efectuado una serie de observaciones que deberán ser tenidas en cuenta en el momento de realizar la urbanización y la edificación; sucintamente son:

A- Se respetará la zona de servidumbre (de 5 m) establecida en la Ley de Aguas.

B- La edificación se separará del cauce la distancia establecida en el PTS de Ordenación de Márgenes de ríos y arroyos.

C- Se garantizará en cualquier caso el mantenimiento de la cobertura vegetal ligada al arroyo.

Por otra parte, recuerda que la futura actuación requerirá la pertinente autorización administrativa previa del Órgano de Cuenca.

Tercero.- Dado que la parcela actualmente está clasificada como suelo no urbanizable, se ha elaborado el pertinente Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental.

El informe preliminar, evacuado en fecha 3 de marzo de 2005, propuso unas medidas que coinciden básicamente con las descritas en el fundamento anterior. La redacción literal de la propuesta fue:

“- Deberá respetarse el cauce del arroyo que hay al sur de la parcela y evitar cualquier actuación que pueda incidir negativamente en la calidad de sus aguas. En este sentido se pondrá especial cui-

diren bitartean, ubideari eragingo dioten jarduerak, bai eta isuriak botatzea ere.

- Lurzatian egingo den eraikinak herrigunearen gainerako eraikinen tipologia mantenduko du.

- Era berean , kontuan hartuko dira IEEBren azterlanaren gainerako neurriak“.

Ondoren, 2005eko irailaren 9an, ingurumen eraginaren behin betiko txostena eman zen; honela bukatzen da txosten hori:

“Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzu honetan uste dugu neurri horiek hartzen badira (lehenago aipatutako aurretxostenekoak, hain zuzen) xedapen-aldaketaren dokumentuan jasotako jarduerek ez dutela izango eragin handirik ingurumenean.

Bestalde, Ingurumena Babesteko eta Zaintzeko Planak aipatu diren ingurumena babesteko eta, ingurumena kaltetuz gero, eragina zuzentzeko neurrien jarraipen berezia jaso behar du”.

Horregatik guztiagatik, eta aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Arraia-Maeztuko planeamenduaren ordezko arauen 4. xedapen-aldaketaren espedientea behin betiko onartzea. Espediente hori Azazetako 229-20 lurzatia hiri-lurzati gisa sailkatzeari buruzkoa da. Hala ere, honakoa ohartarazten da: urbanizatzeko eta eraikitzeko faseetan, bigarren eta hirugarren oinarrian jasotako oharrak hartu beharko direla kontuan.

Bigarren.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Hirugarren.- Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertze-errekurtsoa (administrazioen kasuan, errekerimendua), foru agindu hau eman duen organoari. Hilabete izango da horretarako, honako hau argitaratu edo honen berri jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko azaroaren 30a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

dado durante la realización de las obras constructivas para evitar cualquier acción perturbadora sobre el cauce así como la inducción de vertidos.

- La edificación a construir en la parcela deberá conservar la tipología constructiva del resto del núcleo urbano.

- Del mismo modo, deberán tenerse en cuenta el resto de medidas incluidas en el Estudio de E.C.I.A. realizado.”

Posteriormente en fecha 9 de septiembre de 2005 ha sido emitido el informe definitivo de impacto ambiental, el cual concluye de esta manera:

“Desde este Servicio de Medio Ambiente y Biodiversidad consideramos que con la adopción de dichas medidas (las anteriormente transcritas del informe preliminar) las actuaciones incluidas en el Documento de la Modificación Puntual no provocarán impactos de magnitud significativa sobre el medio ambiente.

Por otro lado, el Plan de Protección y Vigilancia Ambiental de los efectos de la Modificación propuesta deberá contemplar un seguimiento específico de las medidas de protección y corrección del impacto ambiental descritas.”

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de 4ª Modiicación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Arraia-Maeztu, referente a la clasificación como suelo urbano de la parcela 229-20 de Azáceta, advirtiendo que en las fases de urbanización y edificación se tendrán en cuenta las observaciones contenidas en los fundamentos segundo y tercero.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Lo que se publica para general conocimiento.

Vitoria-Gasteiz, a 30 de noviembre de 2005.– La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

## Iragarkiak

### SUSTAPEN EKONOMIKO ETA BERRIKUNTZAREN KUDEAKETA SAILA

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA

**8.160**

**Sei ibilgailu-loteren horniketa kontratatzeko lehiaketa esleitzeko iragarkia.**

1.- ERAKUNDE ESLEITZAILEA:

a) Erakundea: Arabako Foru Aldundia.

b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Zerbitzu Orokorretako Idazkaritza Teknikoa.

c) Espediente zenbakia: 268/05.

2.- KONTRATUAREN HELBURUA:

a) Helburua: ondoko ibilgailu-loteen horniketa kontratatzea:

I lotea: gama apaleko 4 diesel ibilgailu.
II lotea: 4 diesel lur orotako labur.
III lotea: 1 diesel furgoneta handia eta sabai jasokoa.
IV lotea: 2 diesel furgoneta txiki.
V lotea: gama altuko 2 diesel ibilgailu.
VI lotea: 1 pick-up lur orotakoa.

## Anuncios

### DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y GESTIÓN DE LA INNOVACIÓN

DIRECCIÓN DE SERVICIOS GENERALES

**8.160**

**Anuncio de adjudicación del concurso para contratar el suministro de 6 lotes de vehículos.**

1.- ENTIDAD ADJUDICADORA:

a) Organismo: Diputación Foral de Álava.

b) Dependencia que tramita el expediente: Secretaría Técnica Servicios Generales.

c) Número de expediente: 268/05.

2.- OBJETO DEL CONTRATO:

a) Descripción del objeto: Contratación del suministro de los siguientes lotes de vehículos:

Lote I: 4 turismos diesel gama baja
Lote II: 4 todo-terreno diesel cortos
Lote III: 1 furgoneta diesel tamaño grande techo alto
Lote IV: 2 furgonetas diesel tamaño pequeño
Lote V: 2 turismos diesel gama alta
Lote VI: 1 todo terreno pick-up